Astigarragako Udala
Kultura eta Jai saila

ERRIBERA KULTURGUNEA

ZERBITZU LEHIAKETA

Zerbitzu tekniko-eszenikoa eta Publikoaren arreta zerbitzua

SARRERA

Erribera kulturgunea Udal ekipamendua da eta arte eszenikoak (antzerkia, musika, dantza) ekoizteko, erakusteko, irakasteko eta entseguak egiteko, zinema proiektatzeko, bilerak eta ekitaldi sozialak egiteko gunea da. Erriberaren baitan hainbat gune daude: antzokia, erakusketa-gela, liburutegia, musika-eskola, plastika eta yoga gela, batzar aretoa, bilera gelak, dantza-aretoa, ikasgela, bulegoak, biltegia, agiritegia, terraza eta kanpoko espazio estalia.

XEDEA

Lehiaketa honen xedea da Erribera kulturguneko publikoaren arreta zerbitzua eta Erribera kulturguneko ikus-entzunezko ekipamendua kudeatzeko zerbitzu tekniko-eszenikoa kontratatzea.
Zerbitzua bi lotetan banatuko da: batetik **publikoaren arreta zerbitzua**, publikoari harrera, sarreren kontrola eta txarteldegiko salmentaz arduratuko dena eta bestetik **zerbitzu tekniko-eszenikoa**ri dagokion zerbitzua, gehienbat antzokiarekin lotua, baina Erriberako beste aretoetan programatzen diren jarduera eta ekipoak ere barne hartzen dituena, terraza eta kanpoko ataria horien artean.

ZEREGINAK

1.- Lotea: publikoaren arreta zerbitzua

Horrela deitutako zerbitzuak lau atal ditu: publikoaren arreta, txarteldegia, kontrol lana eta zerbitzuaren administrazio lana eta horietako bakoitzean, besteak beste, ondoko funtzioak:

1.a Arreta lana Erriberara bertaratu edo telefonoz deitzen duenari eskaini behar zaiona da, beraz, aurrez aurrekoa eta telefono bidezkoa izango da eta zerikusia izango du Erribera kulturgunean zein beste gune batzuetako kultur jarduerekin edo udaleko kultura sailak sustatutako jarduerekin eta, besteak beste, ondoko lanak egitea dakar:

- Artista, ikuskizunetako langile edo antolatutako edozein jardueretako emaileei, kultura saileko jarraibideen arabera, dagokion areto edo gunea zabaldu edo erakustea, ekipamenduari buruzko argibideak ematea eta ekitaldia bideratzeko izan dezaketen bestelako arazo edo beharrak asetzen lagunduko du.
- Informazioa ematea, bai antolatutako ikuskizunen ingurukoa, bai eraikinaren

funtzionamenduari dagokiona.
- Ikuskizunaren inguruan sor litezkeen arazoak konpontzen edo bideratzen saiatzea eta horien berri kultur arduradunari ematea.

1.b. Txarteldegiko lana ekitaldietako sarrerak saldu eta aforoa kontrolatzeko, alegia, sarrerak pikatu edo aplikazioaren bidez eskaneatu beharko dira. Lan hori gehienetan bi langilek aldiberean egin beharko dute. Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago egon behar da txarteldegian salmentarako eta ordu erdi lehenago sarreran txartelen kontrola egiteko.

1.c Kontrol lana egitea antolatutako ikuskizunak egokitasunez eskaini eta ikusten direla bermatzeko eta eraikinaren eta bertako material eta ekipamenduaren erabilera egokia egiten dela zaintzeko. Besteak beste, ondoko eginkizunak egitea dakar:

- Zaintza lana egitea ikuskizunak, erakusketak edo antolatutako jarduerak iraun bitartean, bai antzoki barruan edo dagokion aretoan, bai sarrera nagusian, beraz, gehienetan gutxienez bi langilek aldiberean egin beharko dute lan (harmailak bilduta daudenean lau, bakoitza larrialdietako irteera batean kokatuta), emanaldia ondo gauzatu eta publikoak arauak betetzen dituela zaintzeko. Emanaldia bukatutakoan, publikoa irteteko ateak zabalduko dira eta kultur teknikariari eguneko bertaratze-datu eta gorabeheren partea osatu eta bidaliko zaio.
- Larrialdi kasuetako lana larrialdiren bat gertatu edo alarmak saltatuko balu zerbitzua ematen ari den bitartean zerbitzuko langileek, larrialdi planeko arduradunari jakinaraziko diote eta bere esanetara jarriko dira, baina, arduradun hori bertan ez balego, zerbitzua eskaintzen ari den langileetako bat arduratuko da eraikineko larrialdi-plana aktibatzeaz eta publikoaren segurtasunerako ezarritako protokoloa jarraitzeaz. Beraz, enpresak zerbitzu honen ardura izango duen pertsona izendatuko du eta segurtasun protokoloa ezagutzen duela bermatuko du. Pertsona hori ondo identifikatuta egongo da eta eraikinaren funtzionamendua, alarma-sistemak, larrialdi irteerak eta larrialdi-plana bera ezagutu beharko ditu.
- Sarbidearen kontrola eta jarraipena egitea, aforoak ez gainditzeko eta eskailera eta korridoreetan jende pilaketa eta zarata eragozteko, bereziki jarduerei eragiten dienean.
- Bestelakoak: klimatizazio, argiteri, giltza elektroniko eta alarma sistemaren oinarrizko ezagutza eta erabilera.

1.d. Zerbitzuaren kudeaketa eta administrazio lana Udaleko Kultura sailak ematen dituen jarraibideen arabera, hainbat administrazio lan egin behar dira, besteak beste, ondokoak:
- Jakinarazpenak: jardueretako eskatzaile, erabiltzaile edo parte hartzaileei abisu

edo oharrak ematea, telefono, email edo SMS bidez.
- Ikuskizunetako sarreren salmenta eta eserlekuen okupazioaren jarraipen txostena osatzea.
- Kulturguneko jarduerak iragartzeko kartelak jartzea (hilekoak, astekoak, egunekoak) horietarako ezarritako guneetan. Programatutako ekitaldien kartelik ez dagoela antzematea eta Kultura saileko arduradunari horren berri ematea eta hala badagokio, kartel bat egitea eta inprimatzea. Erakusgai dauden kartel eta eskuorrien jarraipena egin egunera izateko eta kulturguneko jarduerarekin zerikusirik ez dutenak edo tokiz kanpo daudenak kentzeko.
- Eskatutako beste batzuk egitea: taulak eta etiketak, gutunazalak eta zerrendak, urteko laburpenak, artxibo-lana,.... eta eska dakizkiokeen antzeko beste batzuk.

1.e Zerbitzua ematerakoan egin beharreko atezaintza lanak Erriberako instalazioen erabilera egokia egiten dela zaintzeko, besteak beste, ondoko lanak egin beharko dira:

- Erribera kulturgunea publikoari ireki eta ixtea adierazitako ordutegiaren arabera eta eraikina ixtean, leihoak, ateak, pertsianak, iturriak... itxita eta argiak, berogailua eta antzokian ez dagoen ekipamendua (proiektore, pantaila...) itzalita geratzen direla ziurtatzea.
- Erakusketak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak; besteak beste, koadroak, eskulturak, argazkiak edo bestelakoak jartzea, horiek kaxa edo paketetik atera eta bukatzean berriro paketatzea.
- Erabilitako gela eta aretoak ongi utzi direla frogatzea eta bertan ahaztutako gauzak jaso eta harreran uztea.
- Materiala birjartzea: makinetako edalontziak, komunetako papera eta xaboia...
- Antzokia, erakusketa aretoa edo sarrera ahal den neurrian garbitzea ezusteko arrazoiren batengatik nabarmenki zikintzen bada.

Eta Kultura sailak eskatuta, aipatutako lan-arloekin zerikusia duten beste batzuk.

2.- Lotea: zerbitzu tekniko-eszenikoa

Bigarren loteko esleipendunak Erribera kulturguneko areto eta guneetako ikus-entzunezko ekipamenduaren ardura izango du (eranskinean daude antzokiko ikus-entzunezko ekipamenduaren zehaztapen teknikoak), hau da, ekipo guztien mantentze-lan, jarraipen, erabilera, manipulazio lanak egin beharko ditu eta, besteak beste, bere eginkizunen artean ondoko hauek egongo dira:

2.a Antzokian programatzen diren musika eta ikuskizun eszenikoen lan teknikoaz arduratzea, hau da, ekitaldi bakoitzak behar duen argiztapen eta sonorizazioa bermatzea, ekipoak eta material muntatu eta desmuntatzea eta laguntza teknikoa eskaintzea, baita konpainiek behar duten zamalana egitea ere.

2.b Erribera kulturgunean eskaintzen diren zine programazio eta bestelako proiekzioez arduratzea, hau da, film eta ikus-entzunezko edukiak kargatu eta proiektatzea.

2.c Kultura sailak, hilabete hasieran esleipendunari zein diren laguntza teknikoa behar duten jardueren berri emango dio, bakoitzaren data, ordutegi eta arduradunaren erreferentziarekin, esleipendunak beraiekin harremanetan jarri eta adosteko beharrak, ordutegiak etab.

2.d Publikoaren segurtasunaz arduratzea, batez ere antzokian egiten diren ekitaldietan. Horretarako, enpresak pertsona bat izendatuko du, eraikinaren segurtasun-planaren arduraduna izateko eta larrialdi baten aurrean publikoaren segurtasunaren ardura hartu eta planean jasotako jarraibideen arabera jardungo duena. Beraz, izendatutako pertsonak segurtasun plana eta protokoloa eta eraikinean dauden detekzio sistemak ezagutuko ditu. Pertsona hori jendaurrean dauden ekitaldi guztietan egongo da.

2.e Erriberan antolatzen diren beste ekitaldi mota bateko lan teknikoak egitea, Kultura sailak hala eskatzen badu, adibidez, aurkezpen, bilera, musika entzunaldi, prentsaurreko, erakusketa edo antzekoetan soinu ekipoa instalatzea, proiektatzeko bitartekoak instalatzea, dagokion aretoa argiztatzea (aplikazio bidez edo berariaz instalatuta), emanaldiak grabatzea, streaming bidez emititzea... eta antzeko lan teknikoak egitea.

2.f Antzokia edo Erriberako beste aretoren bat alokatu edo lagapen eskubidea duten duten pertsona edo taldeei, hala eskatu edo behar badute, laguntza teknikoa ematea; esleipendunak gutxienez 3 egun natural lehenago izango du lan horien berri kultur arduradunaren eskutik. Kontratatzaileak hala zehazten duenean, lan horien kostua zuzenean erabiltzaile horiei fakturatuko zaie.

2.g Erriberako ikus-entzunezko ekipamenduaren funtzionamendu egokia bermatzeko ekipoen ikuskapena eta ohiko mantentze-lanak urtero egitea eta horren inguruko txostena aurkeztea. Kanpo geratzen dira konponketa espezializatuak eta instalazio elektrikoaren eta su-itzalgailuen berariazko mantentze-lanak, baina ekipo horietan edo beste edozeinetan matxura edo narriadurarik antzematen bada Erriberako arduradunari horren berri emango zaio.
Urtean hautemandako ekipamendu beharrak eta /edo ikuskapen eta mantentze lanen ondorioz beharrak ikusten badira, ikasturte hasieran Erribera kulturguneko arduradunari horien berri eman eta hobekuntza proposamenak aurkeztuko zaizkio.

2.h Ikus-entzunezko ekipo eta materialen inbentarioa eguneratuta edukitzea eta urtean behin Erribera kulturguneko arduradunari aurkeztea.

2.i Erribera kulturguneko araudia eta Udalaren eta Kultura sailaren bestelako erabaki eta irizpideak betetzea.

Hemen jasotako eginkizunez gain, Udalak hala eskatzen badu, zerbitzuarekin zerikusia duten beste lan batzuk ere egitea.

EZAUGARRIAK

Kokapena: bi loteetako zerbitzuak, bereziki eta gehienbat, Erribera kulturgunean eskainiko dira, Astigarragako Kontxa Etxeberria plaza 1ean (terraza eta ataria barne), baina, kultura sailaren programazioan premiarik sortuko balitz, Astigarragako beste guneren batzuetan ere eskainiko da.

Koordinazioa: Erribera kulturgunearen funtzionamendu egokirako bi lotetan esleituko diren zerbitzuek ezagupen eta profil diferenteak behar dituzte, baina ezinbestekoa da bi loteetako esleipendunen arteko harremana. Horregatik, Kultura saileko arduradunarekin koordinazioa estua eta jarraia izango da. Bi loteetako esleipendunek solaskide bakarra izendatuko dute koordinazio lanetarako eta Kultura sailarekin izan beharreko ohiko harremanetarako. Izendatutako pertsonaren ardura izango da informazioa bere lankideei jakinarazi eta beteraztea. Bestetik, arazo eta aurreikusi gabeko egoerei aurre egin ahal izateko bi loteetako esleipendunei emanaldi egunetan aktibo egongo den telefono zenbaki bat izatea eskatuko zaie.

Egutegia-Ordutegia: Erribera kulturgunea urteko 12 hilabeteetan dago zabalik, baina barneko programazioa irailetik uztailera izango da gehienbat, nahiz eta, beharren arabera, aldaketak eta epe hori luzatu ere egin litekeen.

1. lotea: publikoaren arreta zerbitzua

Publikoaren arreta zerbitzua Udalak programatu eta antolatzen dituen jardueren araberakoa izango da, baina gehienbat asteburuetan programatzen denez, asteburuetako lana izango da, asteburu batzuetan egun bakar bat, beste batzuetan bitan eta badira programaziorik gabeko asteburuak ere, beraz, programazioaren egutegiaren baitakoa izango da. Urtean 397 arreta ordu inguru aurreikusten da.

2. Lotea: zerbitzu tekniko-eszenikoa

Denetara 1.311 teknikari ordu inguru aurreikusten dira. Ekitaldi mota eta formatu ezberdinak kontuan hartu dira eta horien arabera teknikari bat eta hiru arteko lan taldeak aurreikusi dira. Aurreikusten den banaketa horrelakoa da:

- Kultura sailak programatutakoa ekitaldiak. Hilean formatu ezberdineko hiruzpalau ekitaldi eta bi zinema saio bikoitz.
- Herriko elkarte eta erakunde publikoek eta kanpoko bestelakoek antolatutako ekitaldiak. Mota ezberdineko urteko 40 ekitaldi inguru.
- Hilero koordinazio bilerak eta urtero mantentze lanak.

PERTSONALA

1. lotea: publikoaren harrera zerbitzua

Enpresa esleipendunak hiru langile proposatuko ditu, horietako bat behintzat erreferentziazkoa izango dena, eraikinaren segurtasun plana ezagutuko duena, beti bera izango da kontratuaren indarraldi osoan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
Beraien titulazioa eta eskarmentua balio-iritziari lotutako puntuazioan baloratuko da, baina baldintza hauek bete beharko dituzte:
- Gutxienez batxilergoko 2. maila edo lanbide-heziketako goi zikloko titulua izatea.
- C1 euskara titulua edo, hori ezean, ahozko harremanak euskaraz izateko gaitasuna izatea, Astigarragako AEK euskaltegian egingo zaion froga baten bidez egiaztatu beharrekoa.
- Ofimatikako tresnen ezagutza eta eskarmentua izatea.

2. Lotea: zerbitzu tekniko-eszenikoa
Esleipendunak hiru teknikari aurkeztuko ditu:

1- Udala eta kultura sailaren solaskidea izango dena, zerbitzuaren arduradun nagusia eta ekitaldietan larrialdiko planeko ezagutza eta ardura izango duena, beraz, ekitaldietan bertan egongo dena. Pertsona bera izango da kontratuaren indarraldi osoan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
Bere titulazioa eta eskarmentua balio-iritziari lotutako puntuazioan baloratuko da, baina baldintza hauek bete beharko ditu:

* 5 urteko eskarmentua ekitaldien ekoizpen, koordinazio eta gauzatze lanetan.
* C1 euskara titulua edo, hori ezean, ahozko harremanak euskaraz izateko gaitasuna izatea AEK euskaltegian egingo zaion froga baten bidez egiaztatu beharrekoa.

2- Arduradun nagusia ez dagoenean, ekitaldi guztietan egongo den arduradun teknikoa eta larrialdiko planeko ezagutza eta ardura izango duena.
Bere titulazioa eta eskarmentua balio-iritziari lotutako puntuazioan baloratuko da, baina baldintza hauek bete beharko ditu:

* 2 urteko eskarmentua ekitaldi eszenikoen gauzatze lanetan
* C1 euskara titulua edo, hori ezean, ahozko harremanak euskaraz izateko gaitasuna izatea Astigarragako AEK euskaltegian egingo zaion froga baten bidez egiaztatu beharrekoa.

3- Teknikari laguntzaileak.

* urte bateko eskarmentua ekitaldi eszenikoen ikus-entzunezko ekipoekin lanean.
* euskara ulertzeko gaitasuna izatea, B1 mailako titulu bidez ez bada, Astigarragako AEK euskaltegian egingo zaion froga baten bidez egiaztatu beharrekoa.

Ekitaldi guztietan bermatuko da antolatzaile, beste langile eta publikoarekin euskaraz

hitz egiten duen teknikari bat behintzat egotea.

Enpresa esleipendunek Udalarekiko harremana ahoz nahiz idatziz euskaraz bideratuko dute eta herritarrekiko harremanetan herritarren aukerako hizkuntza erabiliko dute. Nolanahi ere, hizkuntz erabilerari dagozkion irizpideak, udal langileek dituzten berberak izango dira.
Langile titularren ordezkoak titulu, eskarmentu eta gaitasun berekoak izango dira.

UDALAREN BETEBEHARRAK

a) Ekitaldien programazioaz eta egin beharreko lanen plangintza orokorraz arduratzea eta enpresa esleipendunari behar besteko aurrerapenaz egin beharreko lanak jakinaraztea, normalean hilaren hasieran. Aste hasieran, berriz, astean bertan egin beharreko lanen xehetasun eta aldaketen berri ematea.

b) Sarreren prezioa eta, oro har, sarrerak saltzeko eta kontrolatzeko sistemak zehaztea. Udalak antolatutako ekitaldietako sarrera, ikastaro eta zerbitzuen prezioa ezartzea, prezio publikoak arautzen dituen udal ordenantzetan urtero GAOn argitaratuko direnak.

c) Erribera kulturguneko areto eta espazioen lagapen eta alokairu araubidea zehaztea. Esleipendunak ezin izango du inola ere espazioak laga edo alokatu.

d) Eraikinaren eta instalazioen mantentze lan orokorrak egitea eta eraikinean instalatutako ekipoak behar bezala funtzionatzen dutela bermatzea.

e) Erribera kulturguneko zuzendaritza orokorraz arduratzea.

ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

a) 1. eta 2. loteko enpresa esleipendunek zerbitzua emateko proposatzen dituzten langileak plantilan iraunarazteko ahalegina egingo dute, gutxienez zerbitzu arduradun gisa izendatutako pertsonak, pisuzko arrazoi batengatik ez bada behintzat, arduradunak kontratuak iraun bitartean aldatu ez daitezen. Halakorik gertatuko balitz, maila eta esperientzia bereko, edota handiagoko, pertsona batek ordezkatu beharko luke eta izendapen berriak Udalaren adostasuna izan beharko luke. Edozein aldaketa edo ordezkapen egin aurretik enpresak Kultura saileko arduradunari aurrez jakinarazi eta Udalak ontzat eman beharko luke.

b) 2. loteko esleipendunak kultura sailak bidalitako lanen aurreikuspenaren arabera, konpainia, talde edo ekitaldi antolatzaile bakoitzarekin harremanetan jartzea

gutxienez astebeteko aurrerapenarekin, emandako datuak baieztatu (eguna, ordua, telefonoak...), egin beharreko lanen xehetasunak eskatu, ordutegiak adosteko eta, hala behar denean, antolatzaileari aurrekontua bidali. Aurreikusi gabeko eta azken orduko eskaerei 48 ordu lehenago erantzutea eta tarte txikiagoa bada, erantzuteko ahalegina egitea.

c) 2. lotearen enpresa esleipendunak beharrezko berrikuspenak egingo ditu eta Udalari behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko dizkio Erriberako ikus-entzunezko ekipamenduan dauden matxuren eta egin beharreko konponketen berri, ekipamendua funtzionamendu onean eta uneoro erabilgarri egon dadin.

d) 1. eta 2. loteko esleipendunek solaskide bakarra izendatuko dute Udalarekin eta Erribera kulturguneko arduradunarekin hitz egiteko.

e) 1. eta 2. loteko esleipendunek behar adina langile izango dituzte eskatutako zerbitzuari atxikita eta eskatzen diren zereginak betetzeko. Langile horiek ez dute inolako loturarik izango, ez administrazio mailan, ez eta lan mailan ere, ez Astigarragako Udalarekin ezta Erribera kulturgunearekin ere. Esleipendunari egokituko zaizkio, hortaz, lan, kontratazio, segurtasun eta arriskuen prebentzioari dagozkion erantzukizun guztiak.

f) 1. eta 2. loteko esleipendunek eta zerbitzua eskaintzeko beraiek izendatutako langileek Erribera kulturgunearen barne Araudia, Segurtasun planean jasotakoak eta udalaren eta kultura sailaren bestelako irizpideak bete beharko dituzte.

g) 1. eta 2. loteko esleipendunek egunean izan behar dituzte zerga-obligazio eta Gizarte Segurantzarekikoak eta lan arloko gaien, laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen inguruan indarrean dauden arauak bete beharko dituzte.

h) 2. loteko enpresak gutxienez 600.000 euroko erantzukizun zibileko asegurua izango du bere ardurapeko zeregin eta lanen ondorioz gerta litezkeen istripu edo kalteei erantzuteko.